



Getxo Antzokia kokaturik dagoen lur-zatirako Getxoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Aldaketa Zehatzari jarritako galdapenak

Josu Amezaga Albizu, Usategi Jaispidea 8an bizi naizen, 946023881 telefono zenbakia dudan eta EHNA zkia. V3683523G dudan honek, EAE-ANV-ko zinegotzia izanik eta honen zein bere izenean, honako galdapenak aurkezten dizkiot 2007ko Uztailak 27an Udal-Batzar Osoak Getxo Antzokia kokaturik dagoen lur-zatirako Getxoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Aldaketa Zehatza, hasiera batean, onesteko hartutako erabakiari, horretarako Alkatetza-Udalburutzaren 6452/2007 zenbakidun ebazpenaren bidez xedatu den jendaurrean azaltzeko izapide berria erabiliz, zeinaren bidez 2007. urteko azaroaren 16ra arte aurkez baitaitezke galdapenak (2007ko Urriaren 26ko BAO).

GALDAPENAK:

1. Proposatzen den eraikin berriak hartuko lukeen azalerari buruz

Jendaurrean azaldutako informazioaren arabera, 6.500 metro koadro azalera eta 24,5 metro altuera izan litzakeen eraikin berri bat egitea aurreikusten da. Eraikin honen helburu nagusiak, Getxo Antzokiaren eta Musika Eskolaren egoitza bertan kokatzea lirateke, 800-900 ikusle hartuko litzuzkeen antzez-areto bat elementu nagusia izango litzatekeelarik.



Eraikin hori egiteak, besteak beste gaur egungo Getxo Antzokiaren eta Basagoiti etorbidearen artean dagoen plazaren (HAPOren dokumentazio grafikoa 48. zkia. duen elementuaren) zati handi bat desagertzea ekarriko luke. Datu zehatzik ez badugu ere, aurkeztutako dokumentazio grafikoaren arabera plaza horren % 60 edo gehiago litzateke eraikin berriak beretzat hartuko lukeena.

Plaza hori, bere bi mailatan, gaur egun umeek eta gazteek erabiltzen dute egunero. Familia eta umeen kasuan, bertan dauden zabu eta umeen parketxoak helburu hori dute hain zuzen. Gazteen kasuan, iluntzero (bereziki astebururo) dozenaka gaztek erabili ohi du, eskupilotan, baloian, skatean zein egonean, bertan dagoen bizitza soziala begi bistakoa izanik.

Eremu horri ia bere azaleraren heren bi kentzeak, inguru horretan dagoen saturazio urbanistikoa kontuan hartuta, leku egokirik gabe utziko litzuzke oraingo erabiltzaileak. Arazoa larriagoa da, kontuan hartzen badugu San Nikolas plazaren zati handi bat inguruko tabernetako terrazek bere egiten dutela arratsaldero, gune horretan guztiz ezinezko bihurtuz Getxo Antzokiaren ondoan egiten diren jolas eta erabileretarako. Horregatik, burutzapen honek ez luke erabilera besterik gabe metro batzuk haratago mugiaraziko; aitzitik, oraingo erabilera zapuztu egingo luke guztiz, terrazak eta umeen zein gazteen jolasak bateraezinak baitira. Gainera, antzoki berriari aurreikusten zaizkion erabilerak beteko balira (800-900 pertsonentzako ikuskizunak), ekitaldiak dauden une oro eremu guztia jende horren joan etorrietarako erabiltzea ekarriko luke.

Ondorioz, proposatzen den aldaketa burutuko balitz, Algortaren erdigune horrek gaur egun duen eremu libre garrantzitsu bat galduko luke, familiak, umeak eta gazteak kaltetuenak izanik.

Gaur egungo erabilerekin hain erasokor den horrelako burutzapen bat, bestalde, ez dago behar bezala justifikatuta. Izan ere, azaldu denaren arabera eraikin berriaren elementu nagusia oraingo antzokia ordezkaturiko lukeen areto bat izango litzateke, 800-900 ikuslerentzako tokia duena. Kopuru hori ordea oso altua dela erakusten du errealitateak. Izan ere, Euskal Autonomi Erkidegoko SAREAko 44 antzokietan 2006ean burututako emanaldien batez besteko ikusle kopurua 297 izan zen (bertan sarturik antzerki, dantza, musika eta lirika emanaldiak), azken zortzi urteetako kopuruak 250-350 artean kulunkatu direlarik. Getxo Antzokiari dagokion



kopurua tarte horretatik behera dago, 234 ikuslerekina (Iturria: Sarea, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila). Getxoko Kultur Etxearen oroitidazkiak berak aitortzen du bere urteroko ekitaldi garrantzitsuenetako batean (Antzerki Jardunaldiak) 5.500 ikusle izan zirela 19 emanalditan banatuta; hots, batez beste 289 ikusle emanaldiko (2005eko datuak). Getxon kopuru horietatik gorako jendetza biltzen duten ikuskizun bakarrak kale irekian edota udalerriko gune ezberdinetan (Santa Eugenia plaza, Xake plaza, Portu Zaharreko beteunea e.a.) aldiro jartzen diren estalpeen barruan burutzen diren musika emanaldiak dira: Blues, Folk eta abar.. Getxo Antzokirako proiektu berriak aurreikusten duen aretoa betetzeko beraz, gaur egun modu deszentralizatuan egiten diren musika emanaldiak Algortan zentralizatu beharko lirateke. Eta ez dirudi hori denik Getxoko Udalaren asmoa. Beste aukera bat, gaur egun egiten ez diren baina horren areto handiarekin egin litezkeen emanaldiak burutzea litzateke. Horrek nabarmen aldaraziko luke Getxoko Kultur Etxearen egungo politika (bere inplikazio ekonomikoengatik), eta hipotesi mailan geratzen da politika horren bideragarritasuna. Areago, kontuan hartuta Bilboko Arriaga antzokiak, bere 1.111 jarlekuekin, emanaldiko batez beste 717 ikusle izan zituela 2006an, proiektatzen den moduko areto handia amortizatzeko Bilbokoaren moduko kultur programazioa beharko litzateke. Eta hori oso urrun geratzen da Getxoko Kultur Etxearen ahalmenetatik.

Getxok beharko lukeen kultur ekipamendu berria eraiki ahal izateko, nahikoa litzateke oraingo Getxo Antzokiak eta bere atzealdeko orubeak (erresidentzialetik ekipamendura aldatzea proposatzen denak) hartzen duten lur azaleraren tamaina, beste modu batean banatuta, eta proiektuari eman nahi zaion gehienezko altueran irabaz daitekeena ere baliatuta.

Hartara, balantza batean jarrita proiektu honetan galtzen dena eta irabazten dena, gure iritziz nabarmena da galera dela handiagoa; izan ere, urtean zehar horrenbeste leku beharko luketen balizko ekitaldi gutxi batzuk burutu ahal izateko behin betirako Algortako herriari gune zabal hori kentzea ez dela justifikatzen iruditzen baitzaigu.

Horregatik guztiagatik, proiektatutako eraikinak gaur egungo Getxo Antzokiaren eta Basagoiti etorbidearen arteko plazak duen lur azalera bere osotasunean errespetatzea eskatzen dugu. Hots, plaza horrek orain duen metro koadro kopurua mantentzea, beste banaketa batekin: eraikina birdimentsionatuz, eta Telefonicaren mehelinaren aurka eraikiz, horren

ondorioz oraingo plazari jango litzaiokeen zatia Etxeandia Gotzaina kalearen aldetik konpentsatuz (alegia, proiektuan Basagoiti etorbidearen paraleloan Etxeandia Gotzaina kalerantz ateratzen den adarra kenduta). Horrela, proiektuaren helburuak modu egokian bete litezke (kultur ekipamendu handia batetik, eta Telefonicaren eraikinaren mehelina betirako konpondu bestetik), oraingo plazak betetzen duen zeregin urbanistikoa (erabilerazkoa eta espaziala) kaltetu gabe.

2. Basagoiti etorbidearen, Getxo Antzokiaren ondoko plazaren, eta San Nikolas plazaren artean elementu bateratua osatzeari buruz.

Proposatzen den aldaketa zehatzaren oroitidazkia, honela dio justifikazioaren 3. puntuan: “*Se elimina el obstáculo del cauce de Basagoiti conformando un todo unitario que permite la utilización conjunta de las plazas*”. Geroagoko jendurreko azalpenetan, Hirigintza Zinegotziak ere aipatu du asmo hau. Baina ez oroitidazkian, ez jendurreko agerpenetan, ez da behar bezala azaltzen nola burutuko litzatekeen asmo hau. Honek, eta lur azpian aparkalekua egiteko proiektuak, San Nikolas plazan zein eragin izango lukeen ez da argitzen. Kontuan hartuta plaza eta Basagoiti Etorbidea maila ezberdinetan daudela, eta egin litekeena jadanik dauden elementuek (Etxeandia Gotzaina kalea, San Nikolas eliza, frontoia, Andres Kortina kalea eta abarrek) mugatzen dutela, ez dago egitasmo honen bideragarritasuna aurreikusteko modurik.

Asmo horren xehetasunak ezagutaraztearen premia areagotu egiten da, San Nikolas plazaren balio historiko eta sinbolikoaz jabetzen bagara: plaza hau, historikoki, Getxoko plaza nagusia izan da, lehenik Andres Kortina eskolaren eta geroago Getxoko Udaletxearen aurrean egokitu delako hain zuzen. J. I. Beaskoetxea Gangoitik dioenez, “*XIX mendearen erdialdetik aurrera Algortako bizimodu publikoaren gunea*” izan da (Getxo, Bizkaiko Herrien Monografiak, Bizkaiko Diputazioa). Udaletxea bera baino lehenagokoa, 1868an diseinatu zen, San Nikolas eliza inauguratu berriarekiko armonian. Ordukoak dira, halaber, oraingo eskailerak zein plaza eta Basagoiti etorbidea banatzen dituen horma. Horregatik, pentsatzekoa da gunea osoa bateratzeak eta lurrazpiko aparkalekua egiteak eragin handia izan dezakeela inguru osoan. Ez baitago argi zer gertatuko den hormarekin, eskailerekin, oraingo komuna publikoen sarrera zaharrekin, eta frontoiaren parean dagoen plazarekin oro har. Ondare historiko garrantzitsu



hau guztiz eraldatuko duen eragiketa ontzat eman aurretik, hartara, xehetasun gehiago ezagutu beharko lirateke.

Horregatik, proposatzen den aldaketaren atal hau, behin behinekoz, bertan behera gelditzea eskatzen dugu, harik eta plaza eta haren elementu guztiak (horma, eskailerak eta komunetako sarrerak) nola geratuko liratekeen argitzen den bitartean.

3. Prozedurari buruz.

Aldaketa zehatza onartzen duen akordioak berak gogoratzen duenez, honelako aldaketei buruz Getxoko Hiri Plangintzarako Aholku Batzordeak hilabeteko epea du, espedientearen jendaurreko informazio epea amaitzen denetik, bere txostena egiteko. Txosten hori, bestalde, ezinbestekoa da aldaketa burutu ahal izateko.

Kontuan hartuta galdapen hauek aurkezten diren egunean (jendaurreko informazio epea amaitzeko egun bat falta dela) oraindik Getxoko Hiri Plangintzarako Aholku Batzordea eratu gabe dagoela, nekez pentsa daiteke aipatu epean beharrezko txostena modu egokian landu eta eman daitekeenik. Areago: ez dago ziurtatzerik epe hori amaitu eta hilabetea baino lehenago batzordea osatuko denik. Hori gertatuko balitz, guztiz irregularra litzateke prozedura.

Bestalde, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezartzen duenez, egiturazko planteamenduaren figurak aldatzean ere herritarren parte hartze programa bat finkatu beharko da. Jakina da jendaurreko azalpen batzuk egin direla, bai eta aldaketaren helburua den Getxo Antzoki berriaren proiektuari buruzko kontsultak eta kontrasteak, zenbait kultur eragileekin. Baina bilera horietan, bereziki, antzokiaren proiektuaz hitz egin da, hots, aldaketa onartuz gero bertan egin litekeenaz, eta ez aldaketaren inplikazio urbanistikoei buruz. Adibide bat, aurreko galdapenean aipatu dugun San Nikolas plazaren eraldakuntza da: jendaurrean banatu den zabalkunderako materiala ez da, aipatu legearen 108. puntuak xedatzen duen bezala, jendeak proiektua “errazago ezagutu eta ulertu” ditzan batere egokia. Izan ere, ez dokumentazio horretan, ez jendaurrera erakutsi den espedientean, ez dira xehetasunez azaltzen espazioa bateratzearen ondorioak, plazan, plazako elementuetan (eskailerak, komunetako sarrerak, frontoiaren alboak e.a.).

Horregatik guztiagatik, prozedura akatsak konpondu ahal izateko, Getxoko Hiri



Plangintzarako Aholku Batzordea eratu arte eta aldaketaren inplikazio urbanistikoaren inguruan 2/2006 Legeak eskatzen duen herritarren parte hartze programa behar bezala gauzatu arte (hots, aldaketak San Nikolas plazan eta ingurune osoan suposatuko lukeena xehetasunez azaldu arte), jendaurreko informazio eta galdapenentarako epea irekita mantentzea eskatzen dugu.

Getxon, 2007ko Azaroaren 15ean

Sin. Josu Amezaga Albizu